

## 32. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

**BAT.-** Artezkaritza Kontseilua nahitaez hilabetean behin bilduko da –Kooperatibaren jarduera nagusia oporrak direla-eta eteten denean salbu-, edo ezohiko deialditan, bere kideetarik baten arrazoibidezko eskaeraren ondorioz. Bileretan bere eskumeneko arazo guztiak tratatu eta erabaki ahal izango dira.

**BI.-** Artezkaritza Kontseiluaren bileretarako deiak Lehendakariak egingo ditu, kide bakoitzari zuzendutako idatzi baten bidez.

Aurreko atalean aurreikusitako ezohiko deialdirako eskabideari Lehendakariak zazpi eguneko epean erantzuten ez badio, arrazoibidezko eskaeraren egileak egin ahal izango du Artezkaritza Kontseilurako deialdia; betiere, Artezkaritza Kontseiluaren heren baten atxikipena lortzen badu gutxienez.

**HIRU.-** Artezkaritza Kontseiluaren bilera baliozkoa izateko, kideetako erdiak baino gehiagok egon beharko du bertan. Kontseilu honetako bileretara bakoitzak aurkeztu beharko du, ordezkaritarik eman gabe. Erabakiak hartzeko, bertaratutakoen erdiak baino gehiagoren botoak behar izango dira. Kontseilariak boto bana izango dute. Lehendakariaren botoa izango da berdinketetan erabakiko duena.

**LAU.-** Bilerako akta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute, eta eztabaidak era laburrean, erabakien testua eta botazioen emaitzak jasoko dira bertan. Horiek Artezkaritza Kontseiluko Akta-liburuan transkribatuko dira.



**BOST.-** Artezkaritza Kontseilura bertaratutakoen bi herenen aldeko botoak behar izango dira gutxienez, jarraian datozen erabakiak hartzeko:

- a) Jarduera-zentro nagusi bat edo beronen zati garrantzitsu bat itxi edo lekuz aldatzeko.
- b) Kooperatibaren jardueran murrizketa, hedapen edo berrikuntza nabarmenak eragiteko.
- c) Kooperatibaren antolaketan garrantzi handiko aldaketak sortzeko.
- d) Beste erakunde batzuekin, kooperatiba edo bestelakoekin, kooperatibarentzat etengabeko eta balio handiko elkarlana ekarriko duten harremanak sortzeko edo desegiteko.

Lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

**SEI.-** Artezkaritza Kontseiluaren aginpideren baten etengabeko ordezkaritza Exekuzio Batzordeari edo Artezkaritza Kontseiluko kide ordezkariaren bati emateko, eta kargu horiek beteko dituzten Artezkaritza Kontseiluko kideak izendatzeko, Artezkaritza Kontseilua osatzen dutenen bi herenen aldeko botoa behar izango da eta ez dute eraginik izango Kooperatiben Erroldan izena eman arte.



### 33. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUARI DAGOZKION XEDAPENAK

**BAT.-** Artezkaritza Kontseiluko lehendakariari dagokio:

- a) Artezkaritza Kontseiluaren izenean elkarteak gai mota guztietan ordezkatzea eta Batzordeko nahiz Batzar Nagusiko bileretako buru izatea.
- b) Botereak xedatzea eta agiri publiko nahiz pribatuak sinatzea, Artezkaritza Kontseiluak edo Batzar Nagusiak hartutako erabakien arabera.
- c) Artezkaritza Kontseiluan erabakiak hartzerakoan sor daitezken berdinketak ebaztea bere botoarekin.
- d) Premiazko izaera duten erabakiak hartzea, horien berri lehenengo Artezkaritza Kontseiluan emanaz.
- e) Bere sinadurarekin ordainketak baimentzea.
- f) Artezkaritza Kontseiluak agintzen dizkion ekintza, kudeaketa eta egitekoak gauzatzea.

**BI.-** Lehendakariordeak Lehendakaria ordeztuko du eta bere funtzioak izango ditu, hau ez dagoen kasuetan. Era berean, Artezkaritza Kontseiluak eta Lehendakariak agindutako egiteko eta kudeaketak gauzatu beharko ditu, eta, bereziki, Lehendakariak Artezkaritza Kontseiluko beste kideetan eskuordetu ditzakeen kudeaketak.

**HIRU.-** Idazkariari ondoko funtzio hauek betetzea dagokio:

- a) Espedienteak eratzea eta horiek behar bezala izapidetzea.
- b) Lehendakariari nahiz Lehendakariordeari erreserbatuta ez dauden gutun eta agiriak sinatzea.





- c) Batzar Nagusietarako eta Artezkaritza Kontseiluetarako deialdiak idaztea eta bideratzea.
- d) Aipatutako organoen bilkuretako aktak idaztea.
- e) Kooperatibaren artxiboa, bazkideen erregistro-liburua, kapital sozialeko ekarpenen liburua, eta Artezkaritza Kontseiluko nahiz Batzar Nagusiko akta-liburuak gordetzea.
- f) Kooperatibaren liburuei eta agiriei dagozkien ziurtagiriak ematea, lehendakariaren oniritziarekin.
- g) Artezkaritza Kontseiluak ematen dizkion gainerako funtzioak.

### **34. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUKO KIDEEN ERANTZUKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUNAK ESKATZEKO EKINTZAK**

**BAT.-** Artezkaritza Kontseiluko kideek ez dute beren karguarengatiko berriazko ordainsaririk jasoko, funtzio horiek betetzea doakoa baita. Hala ere, beren funtzioa betetzerakoan izan ditzaketen gastuak direla eta, konpentsazio ekonomikoak jaso ditzakete.

**BI.-** Artezkaritza Kontseiluko kideak kudeatzaile fin eta ordezkari zintzo modura arituko dira beren karguetan, eta legearen nahiz estatutuen aurka edo behar bezain ondo egin ez dituzten egintzen kalteen erantzukizuna izango dute.





Administratzaileena izango da legearen edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz sorturiko kalteen erantzukizuna, baita karguari dagozkion funtzioak ez betetzean eragindakoa ere, betiere dolo edo erruz jardun badute

Solidaritate-legez erantzun beharko dute egintza kaltegarria burutu edo horrelako erabakia hartu zuen organoko kide guztiek, erabakia hartzean edo burutzearekin zerikusirik izan ez eta halakorik bazenik ere ez zekitela argi uzteko moduan direnak izan ezik, edo, behin ezagututa, horien aurka argi agertu zirenak izan ezik.

Erantzukizuna berbera izango da ekintza edo erabaki kaltegarria Batzar Nagusiak hartu, baimendu edo berretsi bazuen ere.

Administratzaileen erantzukizuna egitezko administratzaileengana ere zabaltzen da.

**HIRU.-** Artezkaritza Kontseiluko kideei erantzukizunak eskatzeko elkartearen ekintza kooperatibaren esku izango da; aurrez Batzar Nagusiak gehiengo soilez erabaki beharko du, nahiz eta eguneko gai-zerrendan halakorik agertu ez. Batzar Nagusiak edonoiz emango dio baiezkoa nahiz ezezkoa ekintza aurrera eramateari. Ekintza bultzatzea edo aurrera eramateari baiezkoa ematea erabakiz gero, kaltetutako Artezkaritza Kontseiluko kideak kargutik kanpo geratuko dira besterik gabe.

Erabakia hartu ondoko hiru hilabeteetan kooperatibak berak erantzukizunak eskatzeko ekintzarik hasiko ez balu, edozein bazkidek egin ahal izango luke.



**LAU.-** Ekintza iraungita geratuko da erantzukizuna eskatzeko arrazoi diren egintzak gertatu edo ezagutu ondoren bi urte pasa eta gero.

**BOST.-** Aurreko puntuetan erabakitakoa kontuan izan behar bada ere, guzti horretatik kanpo dira zuzenean bazkideen edo beste inoren kaltetan Artezkaritza Kontseiluko kideek egindakoengatik batzuek edo besteek egin litzaketen norbanako ekintzak.

